

Komedia musikala Bilbon

GASTEIZ
K.A.

“Easoko ederrak” da Hika Antzerkiak produzitu duen azken lana, eta esperientzia berria da talde honentzat, izan ere ez dute inoiz komedia musikalik egin.

Nahiz eta erdarazko bertsoia estrenatuta izan, euskarazkoaren estreinua asteartean egingo dute, Bilboko El Carmen aretoan, gaueko bederatzietan. Etzi ere, baina gaueko hamabietan, erdaraz emango dute lan berbera.

“Easoko ederrak” Orfeoi Donostiarreko partaideak diren antzerki ikasleekin montatu da, beraz, musika aldetik oso kalitate onekoa dela esan daiteke.

«Espektakulu hau musika edo antzerkiaren aldetik sal daiteke —azaltzen du Hikako partaide batek—, alde biak oso zainduta baitaude».

Lan «freskoa eta arina» batean «Las bellas de Easo» taldeko aurkezpena antzeztzen da, baina hori baino lehen, «gauzak zeharo nahasten dira eta azkenean ia—ia telenobela bihurtzen da».

Erdia kantaturik, erdia hitz eginda, hamabi pertsonaia biltzen ditu antzeztan honek. «Edozein motatako publikoari gustatzeko pentsatuta dago, bai operara joaten direnei, bai tabernaz taberna ibiltzen direnei. Esate ba-

terako, lehenengo egunean Martuteneko kartzelan antzeztu genuen eta presoek harrera ikaragarria izan zen hasieratik amaiera arte».

Espektakulu hau mugitzen duten bitartean, Hikakoak beste lan bat ere ari dira prestatzen: Bernardo Atxagaren “Henry Bengoaren inbentarioa”, alegia. «Gutziz desberdina da; “Easoko ederrak” denbora atsegin bat pasatzeko da, eta beste hau sakonagoa da. Orain arte beti erabili ditugu guk egindako testuak, hau da lehenengo aldia idazle baten testua antzeztzen duguna, eta gainera bizirik dagoen idazle bat da».



«Easoko ederrak» antzeztaneko momentu bat.

Jon URBE